

IZARO ELORZA ARREGUIK, Oñatiko Alkatea naizenez eta legeek ematen dizkidaten ahalmenen arabera, ondorengoa agintzea erabaki dut:

### **BANDOA**

#### **Covid-19 Coronavirus pandemiaren aurrean Oñatiko Udalak hartu dituen neurriak**

Osakidetzak proposatu dituen neurriak kontuan hartuz, Oñatiko Udalak bihartik aurrera honako neurriak bere zerbitzuetan aplikatzea erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrak 2020 martxoaren 12ko bileran:

.- Bihartik aurrera, itxita egongo dira zenbait eraikin publiko eta ohiko zenbait zerbitzu ez dira erabilgarri egongo. Hain zuzen ere, honako hauek dira itxita egongo diren egoitzak: Gaztelekua (Topalekua, Sotoa eta Kuboa), Txaloka Udal Ludoteka, Zubikoako kiroldegia eta taberna, Eltziako kirol gunea, Eltziako taberna, Natur Eskola, Turismo Bulegoa, Arrikrutzeko kobak, Azkoagain futbol zelaia, Larrañako kirol gunea, kultura etxea, Santa Ana antzokia, Euskaltegia —telematikoki eskainiko dira klaseak— eta Euskaldun Berria gela.

.- Horrenbestez, bertan behera geratu edo atzeratu egingo dira aipaturiko egoitzetan datozen egunetan egitekoak ziren ekintzak, ikastaroak... Ostera, behinik behin, mantendu egingo dira Herritarren Arreta Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak.

Gainerakoan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik egindako gomendioak errespetatzeko deia egin du Oñatiko Udalak, hala nola jendetza batu dezaketen ekitaldiak edo espazioak saihestea; berehala egitekoak ez diren tramiteak atzeratzea; edota, ahal den neurrian, tramiteak egiteko bide telematikoak erabiltzea.

.- Jarraipen Batzordea eratzea, egoeraren unean uneko jarraipena egiteko eta hartu beharreko neurriak adosteko. Gaiari loturiko erabaki, gomendio edo berrikirik sortuko balitz, berehala jakinaraziko da.

IZARO ELORZA ARREGUI, Alcaldesa de Oñati de conformidad con las facultades que me han sido otorgadas por la presente dicto el siguiente:

### **BANDO**

#### **Medidas adoptadas por el Ayuntamiento de Oñati ante la pandemia Covid-19 Coronavirus**

Teniendo en cuenta las medidas propuestas por Osakidetza, el Ayuntamiento de Oñati, en sesión celebrada el 12 de marzo de 2020, ha acordado aplicar a sus servicios las siguientes medidas:

.- A partir de mañana, algunos edificios públicos permanecerán cerrados y algunos servicios habituales no estarán disponibles. En concreto, las sedes que permanecerán cerradas son: el Gazteleku (Topalekua, Sotoa y Kuboa), la ludoteca municipal Txaloka, el bar y el polideportivo Zubikoa, el espacio deportivo de Eltzia, el bar de Eltzia, Natur Eskola, la Oficina de Turismo, las cuevas de Arrikrutz, el campo de fútbol de Azkoagain, el centro deportivo de Larraña, la casa de cultura, el teatro Santa Ana, el Euskaltegi —se impartirán las clases telemáticamente— y el aula Euskaldun Berria.

.- Por lo tanto, se suspenden o retrasan las actividades y cursos que se iban a realizar en los citados centros en los próximos días... Por el contrario, se mantendrán el Servicio de Atención al Ciudadano y los Servicios Sociales.

Por lo demás, el Ayuntamiento de Oñati ha hecho un llamamiento a respetar las recomendaciones realizadas desde el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, tales como evitar eventos y/o espacios que puedan agrupar público, retrasar trámites que no sean inmediatos o utilizar, en la medida de lo posible, medios telemáticos para su tramitación.

.- Constitución de la Comisión de Seguimiento para realizar un seguimiento puntual de la situación y acordar las medidas a adoptar. Si hubiera alguna decisión, recomendación o novedad en la materia, se comunicará inmediatamente.

Horrela agindu eta jakinarazten dut Oñatin  
2020ko martxoaren 12an.

Así lo ordeno y hago saber para su  
cumplimiento en Oñati a 12 de marzo de  
2020

Alkateak.

La Alcaldesa

Izaro Elorza Arregui.

Izaro Elorza Arregui